

2018KO AZAROAREN 19AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- 11. EREMUAN OLABERRIA II HIRIGINTZA-EGIKARITZEKO KONTZERTAZIO HITZARMENEAN ADOSTUTAKOAREN ARABERA JASOKO DIREN LOKALA ETA GARAJEA ONDASUNEN INBENTARIOAN JASOTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

2.- 18. EREMUKO (HILERRIA) G.50 PARTZELAN XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN-BETIKO ONESPENA.

3.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALA. POSTA ZERBITZUAREN BIGARREN LUZAPENA.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

María Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- 11. EREMUAN OLABERRIA II HIRIGINTZA-EGIKARITZEKO KONTZERTAZIO HITZARMENEAN ADOSTUTAKOAREN ARABERA JASOKO DIREN LOKALA ETA GARAJEA ONDASUNEN INBENTARIOAN JASOTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak, 2017ko martxoaren 20an egin zuen bilkuran hartutako erabakia ikusirik.

2012ko uztailaren 26ko 11. Eremua Olaberria II hirigintza-egikaritzeko Kontzertazio Hitzarmena (aldatua) eta ondorengo erabakiak ikusirik.

Ormazpei S.L. enpresak, Zegamako Arau Subsidiarioetako 11. Eremuko –Olaberria II-A.20.11.3 partzelan 20 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak eraiki ditu, eta horrenbestez, udalarekin adostutako ondasunen ematea bideratu da.

- Gutxi gora behera 311 m²-ko eraikitako lokal bat eta gutxi gora behera 126 m²-ko terraza pribatua, biek batera, berrehun eta berrogei mila hiruehun eta laurogei euroko (240.380 €) balioa dute.

- Eraikitako garaje bat, hemezortzi mila euroko (18.000 €) balioa duena.

- Sei mila seiheun eta laurogeita hamairu euro eta hirurogeita hamairu euroko (6.693,73 €) zenbatekoa (jasota daudela adierazten da).

Adierazitakoaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Aurrean adierazitako trukatzea formalizatu ondoren, adierazitako ondasunak, onartu eta jasotzea.

Bigarrena.- Ondasun horiek Udal ondasunen inbentarioan dagokion moduan jasotzea.

2.- 18. EREMUKO (HILERRIA) G.50 PARTZELAN XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN-BETIKO ONESPENA.

Alkatetzak, 2018ko urriaren 5ean, hasiera batez onartu zuen 18. Eremuko (Hilerria) G.50 Partzelako Xehetasun Azterlana Udalak sustatuta.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 98.2 artikulua arabera, dokumentua 20 egunez jendaurrean jartzea erabaki zen, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuta, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin - zitzan.

Erabakia, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (2018ko urriaren 16ko 199 zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA), Udal Iragarki Taulan eta El Diario Vasco (2018/10/11) egunkarian argitaratu zen.

Epe horretan ez da jaso dokumentuari buruzko alegaziorik.

Xehetasun Estudioa ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 98 artikuluan xedatzen denaren arabera tramitatu da.

Adierazitakoaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lehenengoa: Behin betikoz onartzea 18. Eremuko (Hilerria) G.50 Partzelako Xehetasun Azterlana. Aldaketa hori, Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoak idatzi du Zegamako Udalaren eskariz.

Bigarrena: Azterketa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordetzeko.

Hirugarrena: Behin betiko onarpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta bertan adieraztea plana hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordeta dagoela. Era berean, hedadura gehien duen egunkarian argitaratuko da.

Laugarrena: Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Berorren aurka ondorengo errekursoak jarri ahal izango dira:

— Administrazioarekiko auzi-errekurtoa: EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

— Berraztertze errekurtoa Zegamako Udalbatzarrari (nahi izanez gero), aurreko paragrafoan aipatutako errekurtoa jarri aurretik, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 89.3 artikuluan ezarritakoa betez, behin betiko onartutako azterketa hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaliko da bertan gordetzeko.

ERANSKINA: HIRIGINTZAKO ARAUAK ERAIKINAREN BALDINTZAK

Partzelaren azalera: 4.611,14 m².

Lerrokadurak eta sestra-lerroak: Planoetan azaltzen direnak.

Etxebizitzaren gehiengo kopurua eta erregimena: 0

ZEHAZTUTAKO ANTOLAKETA

Azalera eraiki eraikigarria: 133 m².

Perfil eraikigarria: BS+solairuartekoa.

Eraikinaren erabilera: Hirugarren mailakoa (partzela g.50 gizarte-kultura-jolasekoa).

Eraikinaren gehienezko altuera: 7 m.

3.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Espedientea ikusirik.

Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko martxoaren 8an egin zuen bilkuran, Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko lanen lizitazioa arautuko duen baldintzen plegu ekonomiko-administratiboa eta teknikoa onartu zuen.

Kontratazio prozedura bideratu ondoren, Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko maiatzaren 17an

Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierri Kirol Teknikoak enpresari (55.556,00 euro gehi 11.666,76 eurotan (BEZ %21) (guztira 67.222,76 euro) esleitzea erabaki zuen.

Kontratazioa arautzen duen baldintzen pleguan adierazitakoaren arabera, zerbitzua emateko epea denboraldi batekoa da, nolana ere, bi aldeen arteko akordioa egonez gero, hau urtero luzatu ahal izango da, gehienez lau denboraldi egin arte.

Adierazitako epea igarotzeaz dagoenez, Udalaren borondatea zerbitzu horiek ematen jarraitzea da.

Horrenbestez, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierri Kirol Teknikoak enpresari, 2019ko abenduaren 31ra arte luzatzea, sinatutako kontratuaren arabera baldintza eta zenbateko berdinekin.

Bigarrena.- Goierri Kirol Teknikoak enpresak, kontratazioa arautzen duten administrazio-baldintza zehatzak eta teknikoak bete beharko ditu.

Hirugarrena.- Igerilekuak martxan jartzeko izapideak bete beharko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak eskatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Dagozkion ondorioetarako erabaki hau Juan Ignacio Moyua Ayala jaunari jakinaraztea, Goierri Kirol Teknikoak enpresaren ordeaz eta izenean.

4.- GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALA. POSTA ZERBITZUAREN BIGARREN LUZAPENA.

Zegamako Udalbatzarrak, 2011ko martxoaren 16an egin zuen bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralera atxikitze erabakia hartu zuen.

2015eko maiatzaren 12ko Alkatetza ebazpenaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskuratzeko Zentralizatuko Sistemaren barnean posta zerbitzuen buruzko esparru-akordioari atxikitzea erabaki zen.

Diputatuen Kontseiluaren eskuordetza medio, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuak 2015eko urriaren 28ko foru aginduaren bitartez, SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A (IFZ.: A83052407) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez X15019 zenbakiko espedientea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatze esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Horrenbestez, Zegamako Udalak, Toki Gobernu Batzarrak 2016ko urtarrilaren 19an egin zuen bilkuran, hau erabaki zuen: esleitzea "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez posta zerbitzuko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X15019) , SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A (IFZ.: A83052407) enpresari, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Zerbitzuko Kontratua 2016ko otsailaren 5ean sinatu zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru

diputatuak, adierazitako esparru akordioaren eta kontratu eratorriaren bigarren luzapena baimendu du, atxikitako entitateei hau jakinaraziz.

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- “Foru Kontratazio Zentralaren bitartez posta zerbitzuko esparru akordiotik” eratorritako kontratua (X15019), SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A (IFZ.: A83052407) enpresarekin adostutakoa, urtebetez luzatzea, erabaki ziren baldintzetan.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 015/01018 erabakia, urriaren 31koa, udal langileen nominak ordaintzeari buruzkoa.
- 016/01018 erabakia, urriaren 31koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 017/01018 erabakia, urriaren 31koa, administrari lanpostua betetzeko prozeduraren barnean osatutako epaimahaikideei bidai gastuak ordaintzeari buruzkoa.
- 018/01018 erabakia, urriaren 31koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 01/01118 erabakia, azaroaren 2koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa onartuz.
- 02/01118 erabakia, azaroaren 2koa, Oihana Zubizarretaren bajan ordezkatzeko langilea kontratatuz.
- 03/01118 erabakia, azaroaren 8koa, Goierri Kirol Teknikoak enpresari, gimnasioaren erabilpena egiteagatik dagozkion tasen kobrantza bideratuz.
- 04/01118 erabakia, azaroaren 8koa, Ostatuan zenbait zerbitzu emateko langileak kontratatuz.
- 05/01118 erabakia, azaroaren 8koa, 3/2018 Kreditu Aldaketa jendaurrean argitaratu ondoren kontabilizatzea aginduz.
- 06/01118 erabakia, azaroaren 14koa, 11. Eremua Olaberria II Hirigintza-Egikaritzeko Kontzertazio Hitzarmenean adostutakoaren arabera eta Udalbatzarrak 2017ko martxoaren 20an hartutako erabakian onartutakoa bermatzeko, Ormazpe S.L. enpresari berme bezala aurkeztu zuen 258.380,00 euroko abala itzuliz (14051461-79 Erregistroko Abala).

6.- GALDE ERANTZUNAK.

- Alkateak, administrari lanpostua betetzeko prozeduraren berri ematen du.
- Alkateak Ostatuaren kudeaketari buruzko aurreikuspenak azaltzen ditu.
- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) Partzuergoko larre-planari buruz galdetzen du. Alkateak, honi buruz dituen datuen azalpena egiten du.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2019kok

O.E./ VºBº

ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2019.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO